



Garai bateko ahotsak eta altxorrak

'Lasarte-Oriako ahotsak' ondu dute Badihardugu Euskara Elkarteak eta udaleko Euskara batzordeak; 23 herritarrek parte hartu dute / 4

TXINTXARRI

Eztandaren lekukoak

Txileko leherketa sozialaren lekuko lasarteoritarren testigantzak bildu ditu TXINTXARRI-k / 6-9

Kolorez eta tradizioz jantziko dute herria Euskal Inauteriek larunbat arratsaldean, otsailak 15 / 3

LOKEko amateur eta eskolarteko gimnastek lehen postuetan hasi dute lehiaketa denboraldia / 10

TXINTXARRI PUBLIZITATEA:
Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?
publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66

Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria

ZUBIETA TABERNA *berria!*

Hipodromo etorbidea, 12 Lasarte-Oria

2car
Zumaburu kalea 18
Lasarte-Oria Tel: 943 36 24 63

berria
Zatoz ezagutzera
motoentzako pneumatiko eskaintza

Continental
The Future in Motion

BLACK-CHILI
TracTackin MultGrip ZeroDegree RainGrip GripLMFeedback Handmade in Germany



PSE-EE alderdiko Iñigo Zabaletak (eskuinean) otsaileko udalbatzarrean hartu du zinegotzi kargua. TXINTXARRI

Aurpegi berri bat udal korporazioan

Otsaileko ohiko udalbatzarrean bildu dira korporazioko kideak. Gai ugari landu dituzte: ustelkeriari aurre egiteko tresnak martxan jartzeko eskatzea, ikastetxeen matrikulazio kanpaina eta Mendebaldeko Saharari elkartasuna adieraztea, besteak beste

Iñigo Gonzalez Sarobe

Aurpegi berri bat udal korporazioan: Iñigo Zabaletak (PSE-EE) zinegotzi kargua hartu du otsaileko ohiko udalbatzarrean; bederatzigarren joan zen zerranda sozialistetan, 2019ko udal hauteskundeetan. Jesus Zaballosen dimisioa eta gero, betetzeke zegoen leku bat Udal Gobernuan. Alkate ohiaren kargu uzteak ekarri ditu aldaketa gehiago. Esaterako, Gobernu Batzar Lokalean David Mateosek ordezkatu du. Beste zenbait organotan –Añarbe, San Markos, Beterrri eta Beterrri-Buruntza garapen agentzia– ere aldaketak egin dituzte. PSE-EE eta EAJ alderdietako kideek egingo dituzte ordezkari lanak. Proposamen horren aurka bozkatu du EH Bilduk. "Udal hauteskundeetako emaitzak ez dira islatu izendapenetan".

Ohiko udalbatzarrek egunez aldatzeko proposamen bat eraman du Alkatetzak pleno aretora: hilabete bakoitzeko bigarren

ostegunetan egitea, alderdiek denbora gehiago izan dezaten saio hori lantzeko. Kexatu egin da EH Bildu, adieraziz inork ez duela zuzenean hitz egin berekin horri buruz. Arrazoia eman die Agustin Valdivia alkateak, eta hitz egitekotan geratu dira. Gaurko ezohiko udalbatzarrean landuko dute gai hori berriro.

Alderdien mozioak

Alderdi politikoen eta eragileek aurkeztutako mozioak ere jorratu ditu korporazioak. "Ustelkeriaren aurka borroka egiteko" tresnak martxan jartzeko beharra ikusten du EH Bilduk, eta mozio bat aurkeztu du gaiari buruz. Bertan behera geratu da: sei aldeko bozka jaso ditu, eta 11 aurkako. Mozio alternatibo bat aurkeztu dute sozialistek eta jeltzaleek. "Gure proposamena txukunagoa eta osatuagoa da; alderdi guztiei interesatzen zaigu ustelkeriaren aurka borrokatzea", adierazi du EAJren bozeramaile Jon Antxordokik. Alderdi guztiek

egin dute mozio horren alde, EH Bilduk izan ezik. Abstenitu egin da. Estitxu Garmendia zinegotzia: "Ados gaude proposatzen duzuenarekin, baina azalekoak dira neurriak".

ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek herriko ikastetxeen matrikulazio kanpainen gaia eraman du udalbatzarrera. Udal Gobernuari eskatu dio kanpainak sustatzeko neurriak hartzeko, matrikulazioak "progresiboki jaisten" ari direlako. PSE-EEK eta EAJK ez dute proposamen horren alde egin: esan dute ELOPek ez duela kontuan hartu jaiotza-tasen beherakada.

Mendebaldeko Saharako herriari elkartasuna adierazio dio udal korporazioak, aho batez. Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak sartu du mozioa. Herrialde horretako bandera jarriko dute udaletxean otsailaren 27an, ostegunarekin. Elkarteak manifestaziora deitu du egun horretan, Okendo plazan, arratsaldeko zazpitan.

Pentsiodunen ekarpen sozial eta ekonomikoari balioa ematen

Astelehenero legez, Okendo plazan elkartu dira herriko hainbat erretiratu, pensio duinen beharra aldarrikatzeko

Txintxarri

Christine Lagardek adierazpen batzuk egin zituen NDF Nazioarteko Diru Funtseko lehendakaria zenean –Europako Banku Zentraleko agintaria da gaur egun–. Esan zuen "arriskutsuak" direla pentsioak, jubilatua "gehiegi" bizi direlako, eta "arriskuan" jartzen duelako horrek mundu mailako ekonomia. Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak adierazpen horiek gezurtatu ditu astelehen goizean Okendo plazan egin duen agerraldian. "Ez da egia pentsiodunak oztupo bat garela

ekonomiarentzat". Dozenaka pentsionista elkartu dira gaur, astelehenero bezala, euren aldarrikapenak lau haizetara zabaltzen jarraitzeko.

Adibide ugari jarri dituzte koordinakundeak kideek Lagardek esandakoa ezbaian jartzeko: nabarmendu dute pentsiodunek laguntzen dutela ekonomiaren zikloan eta lanpostuak sortzen, euren eguneroko kontsumoaren bitartez; lan-bizitza "luze" baten ondoren "ordaindu duten zatia" ere ekarpen garrantzitsu bat dela adierazi dute.



Lasarte-Oriako pentsiodunak kalera atera dira beste behin. TXINTXARRI

Michelingo hitzarmena kritikatu dute ELA eta LAB sindikatuek

Lasarte-Oriako lantegirako akordioa sinatu dute CCOO eta UGT sindikatuek, CSI enpresa sindikatuarekin batera

Txintxarri

Gogor kritikatu dute ELA eta LAB sindikatuek Michelin Lasarte lantegirako sinatutako hitzarmen berria; lau urtetarako akordioa izango da. CCOO eta UGTk adostu dituzte baldintzak, CSI enpresa sindikatuarekin batera. "Atzerakoa eta kaskarra" dela dio ELAk. "Ehunka milioi irabazten dituen enpresa batean baldintza atzerakoiak sinatu dira". LABek salatu du prekarizateari eusten diola hitzarmenak, eta areagotu egiten dituela murrizketak. LABi "onartezina" iruditzen zaio

2019rako soldata igoerarik ez jasotzea, eta 5x8 sistemarako lanaldia luzatzea. "Datozen hiru urteetan igoerak %1,25 eta %1,50ekoak izango dira, eta ez zaizkie aplikatuko soldata osoei; gainsariek ez dute igoerarik izango", adierazi du ELAk.

Bi sindikatuek azpimarratu dute langileen borondatea kontuan hartu gabe sinatu dela Michelin Lasarte lantegirako hitzarmena. Era berean, adierazi dute borrokan jarraituko dutela, beharginen lan-baldintzak hobetzen jarraitzeko.

Badator festa, badatoz Euskal Inauteriak

Ttakun KEk antolatu du egitaraua, hainbat eragilerekin elkarlanean. Larunbat arratsaldean hasiko dira Euskal Inauteriak: Zubietan ekitaldia egingo dute 16:30ean, eta Lasarte-Oriarantz etorriko dira txantxoak ordu erdi beranduago. Okendo izango da gune nagusia

Txintxarri

Euskal Inauteriek kolorez eta tradizioz beteko dute Lasarte-Oria larunbat honetan, hilak 15. Festa ekintzak arratsaldean egingo dituzte, 16:30ean hasita. Zubietan egingo dute hasierako ekitaldia. Ondoren, kalejiran, herrirantz abiatuko dira, koloretako zakua eta lastozko txapelak buruan, txantxoz jantzita. Ikastaro pare bat egin dituzte azken egunetan Lasarte-Orian, Ione Artolaren eskutik. Txantxo jantziak nola egin ikasi dute izena eman duten familiek. Bihar jantziko dituzte.

Ttakun Kultur Elkarteak antolatu du egitaraua, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, eta hainbat eragilerekin elkarlanean: Ttiriki Ttarraka musika eskola, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Xumela korua, Plaza dantza egitasmoa eta Zubietako Lagunak elkarteak. Aurten erabaki dute arratsaldean ospatzea Euskal Inauteriak. Esan bezala, 16:30ean lehertuko da festa, Zubietan egingo duten hasierako ekitaldi koloretsuan, konpartsa eta guzti.

Txantxoak Lasarte-Oriarantz abiatuko dira gero, kalejiran. Hipodromo Etorbidean elkartuko dira herritarrekin. Bertan egongo dira zain baita ere mamoxarro bihurriak, jantzi zuriak eta



Parte hartzaileetako batzuk, asteazken iluntzeko aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

maskara gorriak soinean. Txantxoek Lasarte-Oriako kaleak zeharkatu bitartean herritarrek zirikatu dituzte pertsonaia horiek, giro onean beti ere.

Kalejiraren ibilbidea

Hipodromo Etorbidea zeharkatu eta gero, Kale Nagusian sartuko dira Euskal Inauteriak. Largoena kaleraino joango dira, eta bertako biribilgune txikian buelta eman. San Pedro eliza parera iristean, ezkererantz hartuko dute, eta Okendo plazara sartuko dira. 19:00ak aldera bukatuko da kalejira, eta senidetze ekitaldia hasiko. Urteroko ituna berrituko du orduan Lasarte-Oriako herriak, Zubietatik etorritako

xomorroekin. Hona hemen iaz adostu zutena: urrezko dukatuak, jakiak eta edariak xomorrontzat, baldin eta herriko uzta, abere eta biztanleak bakean uzten bazituzten. Ea aurtengo akordioa zein baldintzatan berritzen duten. Itunik egingo ez duena Kaxkamalo izango da: sutan erreko dute txantxoek, Lasarte-Oriara urtean zehar ekarri dituen gaitzengatik ordain dezan. Senidetu eta gero piztuko dute sua parte hartzaileek. Ekitaldi horrekin bukatuko dira Euskal Inauteriak. Ondoren, festan parte hartu duten guztiek indarrak berrituko dituzte, txokolate bero eta goxoa edanez. Antolatzaileek parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Inlof

Banuen gaia, banuen diskurtso (nahiko) garatua, eta gogorik ez zitzaidan falta zutabeari heltzeko. San Valentín: jo ta bertan hil. Banuen izenburu ponposo eta aldarrikatzailea ere. Baita praktika on eta txarrei buruzko adibide sorta ere. Aitor dezadan: ia 25 urteek eman didaten esperientzia “zabala” (heterosexual eta batik bat monogamo, baina ustez feminista) baliatu nahi nuen zuei denoi harreman sexo-afektiboei buruzko lezio zenbait emateko. Baina “jo ta bertan hil”. Gaian aditua den EHUko irakasle batek eman dit lezioa, egunkarirako elkarrizketa bat proposatu diodanean: “Azken urteetan erabakita daukat ez egitea ezer San Valentín inguruan, hain justu, data hori ez indartzeko”. Akabo zutabea. Kupidorena baino gezi zorrotzagoa sabelean: “Kontua ez da, beraz, zein nolako harreman sexo-afektibo edo bikote eredu ditugun ohiko harremanetatik kanpo. Ez da hori bakarrik, behintzat. Kontua da zein nolako harreman-sarea osatzen dugun gure inguruan. Nor zaintzen dugun zeren truke, nola goxatzen ditugun bikoteez gaindiko harremanak...”, pentsatu dut nire baitarako.

Zutabea kolokan jarri didan irakasleaz gogoratu naiz zutabeari buelta emateko. Oroitzen naiz maitasun erromantikoari buruzko klasean mahai gainean jarri zituela lagunen arteko harremanak, esaterako. Irakurleoi, galdera bat: inoiz hautsi duzue lagunen batekin? Esan diezue jeloskor zaudetela bere bikotekide berriagatik edo iruditzen zaizue laneko kideei arreta gehiago eskaintzen diela? Esan diezue faltan botatzen dituzuela? Ba al duzue espaziorik horri guztiari buruz hitz egiteko? Begiratu iezaiezue harreman sexo-afektiboez gaindiko bizitza-euskarri horiei. Zein beharrezkoak diren, eta aldi berean nola jartzen ditugun, nahi gabe, gure harremanen hierarkian maila batzuk beherago. Baita maitasun erromantikoarekin haustez ari garenean ere.

Hortaz, moralitateak alde batera utzita, zutabea baliatuko dut nire bizitza-euskarri zaretanoi zuzentzeko: nahiko nuke zuekin kafe eternalak hartu, elkar zaindu, etorkizuneko proiektuak eraiki. Zaindu eta goxatu. Zuentzako gaurko maitasun aitortza. Inlof zuekin.

Mari Luz Esteban etorriko da Irakurle Txokora asteartean

Irakurle Txokoko kideak datorren asteartearen elkartuko dira berriro; 2020ko bigarren saioa egingo dute, kultur etxeko hirugarren solairuan, 18:30etik aurrera. Uxue Alberdik

dinamizatuko du saioa, ohi bezala. Mari Luz Esteban idazlea gonbidatuko dute, eta berak ondutako *Andrezaharraren manifestua* landu.

Martxoko saioan Amets Arzallusek idatzitako *Miñan* eleberria aztertuko dute. Saiora bertaratuko da idazlea, Irakurle Txokoko kideekin solastera.

URTEBETETZE FESTAK OSPATZEKO ERREZETAK

SUKALDARITZA TAILERRA
HH5-LH1-LH2koentzat
(2014, 2013 eta 2012. urteetan jaiok)

ASTELEHENETAN: Martxoak: 2, 9, 16, 23 eta 30
18:00 ETATIK 19:30 ERA TTAKUNENAN

12€ TTAKUNENKO BAZKIDEAK 15€ EZ BAZKIDEAK
GRAMAN BEHARREKOAK: MANTALA

Izena emateko:
Ttakuneko bulegoan | aisia@ttakunews | Tel: 695785392

Aurpegi eta gorputz tratamenduak

- Mota ezberdinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a

MAITE

Zerbitzu mistoak

ESTETIKA ARETOA

Zure burua mailatzea da garrantzitsuena

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



Antonio Mercero aretoa lepo bete zen astearte arratsaldean, 'Lasarte-Oriako ahotsak'-en aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

Ahotsak eta bizipenak biltzen dituen ondarea

'Lasarte-Oriako ahotsak' egitasmoa ondu dute Badihardugu Euskara Elkarteak eta udaleko Euskara batzordeak. 23 herritar elkarrizketatu dituzte, garai bateko hizkera eta bizimodua jasoz: ohiturak, lanbide zaharrak, pasadizoak... Altxor bat herritarren eskura

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herriko ahotsak egitasmoa pertsona adinekoenen euskarazko ahozko ondarea jasotzen ari da 2003. urtetik. Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak martxan jarri zuen egitasmo hori. 362 hiri eta herritara iritsi da, baita Lasarte-Oriara ere. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordearekin

elkarlanean, herriko 23 pertsona elkarrizketatu dituzte, hemengo hizkera jasotzeko, azken hamarkadetan gehien aldatu diren alorretan sakonduz: ohiturak, bizimodua, lanbide zaharra, sinesmenak eta beste hainbat. Bestela esanda, Lasarte-Oriako garai bateko ahotsak eta altxorrak bildu dituzte, eta herritarren eskura jarri,

errealitate hori ezagutzeko, gertutik eta euskaraz.

Euskara batzordeko buru Jon Antxordokik eta Badihardugu elkarteak kide Idoia Etxeberria eta Irati Lizeagak aurkeztu dute *Lasarte-Oriako ahotsak*, Antonio Mercero gunean. Txiki geratu da aretoa, protagonistez gain, familiako hainbat kide ere gerturatu direlako euren istorio

eta pasadizoak entzutea. Eskerrak eman dizkie Antxordokik egitasmoan parte hartu duten pertsona guztiei. "Zoritxarrez, euskaldun izatea eta jokatzeko zigortua izan da herri honetan. Hori ez dago ondo". *Lasarte-Oriako ahotsak* "oso garrantzitsua" dela uste du Euskara batzordeburuak: "Zuen kontakizunei esker, lortzen dugu garai bateko ohiturak eta bizipenak ez galtzea, eta belaunaldi gazteek horiek ezagutzeko aukera izatea". Badihardugu Euskara Elkartearekin batera egindako lanketak fruitu ugari eman ditu, Antxordokiren hitzetan. "Urrats handi bat egin dugu Lasarte-Oriako kultura, historia, etnografia eta hizkuntzaren bilketa, kontserbazio eta hedapenean".

Milaka testigantza

Badihardugu Euskara Elkarteak 2003an jarri zuen martxan Euskal Herriko ahotsak proiektua. "Konturatu ginen asko aldatzen ari zela euskara, galtzeaz zeudela hizkera eta esamolde eder asko", nabarmendu du Idoia Etxeberriak. Deba Ibarren ekin zioten elkarrizketak egiteari; orduz geroztik, Euskal Herri osora hedatu da: 362 herri eta hiri, 6.100 elkarrizketa baino gehiago eta 58.000 bideo inguru sarean, biztanleen eskura. "Auzolana da oinarria: denok egitea lan elkarrekin, jakinduria jaso eta denen eskura jarri".

Lasarte-Oriako 23 pertsonak parte hartu dute proiektuan. Ainhoa Ansa eta Miren Artetxek elkarrizketatu zituzten lehenengo herritarrak, 2009. eta 2010. urteetan; hamar, bien artean. Irati Lizeagak jaso ditu gainontzeko hamahiruen testigantzak, 2019an. "Asko gozatu dut elkarrizketekin; ezezaguna nintzen zuentzat, baina pasadizo

eta istorio ugari partekatu dituzue nirekin", adierazi du. Bere lankide Idoia Etxeberriak esplikatu duenez, ordu eta erdi ingurukoak izan dira solasaldiak. "Protagonisten etxeetan egin ditugu, eta udaletxean ere bai; minutuz minutu entzun ditugu, eta pasarte interesgarrienak atera". 738 kontakizun igo dituzte www.ahotsak.eus/lasarte-oria web orrialdera.

23 lasarteoriatar

Esan bezala, 23 herritarren testigantzak jaso dituzte Lasarte-Oriako ahotsak egitasmoan. Hauek dira: Mertxe Altuna, Maria Luisa Arsuaga, Juantxo Arteaga, Maritxu Beraetxe, Txomin eta Modesto Erauskin, Martina Iturrioz, Sebastian Kerejeta, Gabriel Nogues, Eulalia eta Rafael Ollokiegi, Manuel Ormazabal, Inaxio Otaegi, Micaela eta Bixente Sasiain, Pako Sorrondegi, Andoni Unanue, Maria Jesus Urkiola, Gabriel eta Iñaki Urruzola, Valentina Yeregi, Fortunata Zuaznabar eta Ixabel Zuaznabar. Protagonista horietako batzuk zendu dira honezkero. Gogoan hartu ditu Lizeagak: "Ez nituzke ahaztu nahi gure artean ez dauden herritarrak: Andoni Unanue, Modesto Erauskin, Manuel Ormazabal, Fortunata Zuaznabar eta Valentina Yeregi".

Aurkezpena eta gero, mokadu bat jan dute protagonista eta familiekin. Baita laster 100 urte beteko dituen Gabriel Noguesek ere; ezin izan du bostetarako iritsi, etxeko igogailua hondatu delako. Berandu, baina momentu onenean iritsi da: gainontzeko elkarrizketatuekin familia argazkia atera du, eta baita askaria egin ere, erakusketa gunean. Etorkizunean kontatzeko beste pasadizo bat.

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloko aurreneko proiektzioak

Manuel Lekuona Kultur Etxea izango da itsaspeko zinemaren erakusleho datozen asteetako astelehen arratsaldeetan

Txintxarri

Hasi da Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zinema Zikloa. Astelehenean egin zuten lehen proiektzio-sorta antolatzaileek, kultur etxeko auditorioan. Jende dezente gerturatu zen emanaldi

horretara. Antolatzaile nagusi David Sanchez Carretero, Danok Kide elkarteak ordezkari Jesus Mari Egizabal eta dokumentalgile Enrique Talledok parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian. Otsailaren 17an eta 24an,

astelehenez, beste bi proiektzio iragarri dituzte. Dokumental luzeak, laburrak, filmak... mota askotako ikus-entzunezko piezak erakutsiko dituzte. 19:00etan hasiko dira.

Kultur etxeko kafetegian, aurreneko solairuan, argazki erakusketa bat ireki dute antolatzaileek. Irudi benetan txundigarriak ikus daitezke bertan. Otsailaren 27ra arte egongo da ikusgai. Ordutegia, honakoa: 17:00etatik 20:00etara, arratsaldeetan.



Zikloko antolatzaileak eta Enrique Talledo dokumentalgilea aurkezpenean. TXINTXARRI

Poesia eta bertsolaritza umoretik uztartuz

Seigarrenez, bertso afari literarioa egin du Irakurle Txokoak. Xirimiri elkartearen dozenaka lagunek bete dute Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsoetan entzuteko. Iñigo Astiz idazle eta kazetari nafarrak proposatu dizkie gaiak poemetan oinarrituta

Txintxarri

"Errezitaldi bertsolatua edo bertso saio estrofatua". Hala definitu zuen Iñigo Astizek hitza lehenengoz hartzean jarraian gertatuko zena. Poesia eta bertsolaritza. Poetak eta bertsolariak. Aldeak eta berdintasunak oso presente egon ziren errimen artean, poemak izan baitzituzten ardatz eta hari. Eta umorea ere, noski.

Xirimiri Elkartearen lepo zegoen. Irakurle Txokoak 100 lagunentzako salgai jarritako txartelak agortuta, bertsolariak entzutea bertaratu ziren lagunei tokia egin zieten txoko batean aulkiak jarrita. Mahai luzeen bueltan, berriz, afaria konpainia onean egin zutenak hitz eta pitz zebiltzan. Aurreikusitakoa baino geroxeago jarri ziren mikro aurrean Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio. Ez zuten hasteko presarik izan, ezta amaitzeko ere, 90 minutuz aritu baitziren.

Astizek poesiaren beste alderdi bat erakutsi nahi izan zuen bere zenbait lan irakurrita eta haietan oinarritu zituen bertsolarietarako lanak. Ironia eta autoparodia igar zitekeen bere hitzetan, baina serio ari zenean ere barre algaru ugari eragin zituen nafarrak. Hirukotearen lagun egiten



Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Uxue Alberdi aritu ziren bertsoetan, Xirimirin. TXINTXARRI

ahalegindu zen, eta ustezko gaizki ulertuak salbu, gertutasuna lortu zuen, bederen.

Poesiaren beste ertzak

Ultzaman marradun harri batean Europa mendebaldeko mapa zaharrena topatu omen zuten, duela 13.660 urtekoa. Mapa hori norentzat marraztu ote zuten pentsatzeak iradokitakoa poema batean bildu zuen Astizek. Hura irakurrita, Alberdik eta Labakak egile eskubidea, copyright-a, norena zen eztabaidatu behar izan zuten. Maisuki amaitu zuen

Alberdik hika-mika dibertigarria: "Baina arazo bat dugu / eta ez da mesede / izenik ez dugula / sinatzeko ere". Historiari helduta, 1936ko gerrara jauzi egin zuen gai jartzaileak, seriotasun kutsua izan zuen ariketa bakarra. "Bandera trapu bat da edo trapu bat bandera bat da?" galderari erantzun behar izan zion Lujanbiok bakarka. Hortik aurrera, umorea izan zen nagusi, poesiak jolaserako ere balio baitu. Jandakoak eta entzundakoak eragindako ahogozaorekin, txalo artean amaitu zen afaria.



TXINTXARRI

Ernai ere erraustegiaren aurka

Ernaik ekintzak antolatu ditu otsailaren 27an, ostegunarekin, Zubietako erraustegiaren aurka protestatzeko. 12:00etan mobilizazioa egingo du Donostian. Arratsaldean, 19:00etatik aurrera, manifestazioa abiatuko da Lasarte-Oriako Okendo plazatik. Ernaik bat egin du Larreko Mahaiak otsailaren 29an antolatutako manifestazioarekin: Donostian izango da. 17:00etan abiatuko da Easo plazatik.



TXINTXARRI

Salaketa egiteko, elkarretaratzea

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deituta, Zaldibarko zabortegean gertatu den ezbeharrak salatu dute asteazken arratsaldean, Okendo plazan. Horrekin batera, Zubietako erraustegia geratzeko eskaera ere egin dute, eta datozen egunetarako deituak dauden mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete lasarteoriarrei.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

IZAN IÑURRI SORTA
(Poltsa urdin bat + bi pegatina + Ama lamina)
zozkatuko ditugu.

Eman izena otsailaren 21a baino lehen.



Instagram
@izaninurri



harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

Inoiz imajinatu gabeko eztanda sozialaren lekuko

Urriaren 18an egin zuen eztanda Txileko gizarteak. Metroaren prezio igoerak leherrarazi zuen egunerokoa, baina ez da hori izan herrialdea esnatu izanaren arrazoi bakarra. Beste hainbat arrazoirekin batera, gutxieneko soldata prekarioekin, pentsio-sistema ez duinekin, eta osasun eta hezkuntza sistemak bere gain hartu ezinik lokartuta egon da orain arte. Horrela, txiletarren ezinegonak mugak gainditu, eta biziraupenaren haria eten egin da. Bizitza duin bat lortzeko helburuarekin kalera irten, eta etengabeko borrokan ari dira orduz geroztik. Ezustean, inork inoiz imajinatuko ez zuen gisan, lau lasarteoriatar izan dira Hego Amerikako herrialdean gertatutakoaren lekuko, eta han bititakoak kontatu dizkiote TXINTXARRI-ri.





Ane Irurtia lasarteoriatarra erdian, Maddi Egizabal eta Karla Goikoetxea ikaskideekin Txileko mobilizazio batean. ANE IRURTIA

"Mundura zabaldu ez duten errealitatea bildu dugu dokumentalean"

ANE IRURTIA SOBREVIVIR DOKUMENTALAREN EGILEA

Euskal Herritik joandako beste hiru ikaskiderekin batera, 'Sobrevivir' dokumentala osatu du lasarteoriatarrek. Txilek bizi duen errealitate gordina azalertzeko sortu dute ikus-entzunezkoa

Maddi Zaldúa

Txilera iritsi eta bertan egonaldia luzatzen ari zen heinean konturatu zen Ane Irurtia (Lasarte-Oria, 1998) herrialdearen gehiengoak bizi duen errealitate gordinaz. Konturatu zen baita ere Txilen gertatzen ari zenaz bestelako irudi bat munduratzeko ari zela; errealitate gordin horretatik urrun geratzen zena.

Haur Hezkuntzako ikasketak egiten ari da Mondragon Unibertsitatean, eta Txileko iparraldean dagoen Antofagasta hiriko hezkuntza sistema ezagutzeko asmoz abiatu zen Hego Ameriketara. Baina eskoletako egunerokoaz gain, beste errealitate batzuk ezagutzeko

beste aukerarik ez du izan, ezustean. "Gizarte erabat elitista da Txilekoa, ezberdintasun soziala ikaragarria da".

Santiago hiriburuan eztanda gertatu eta egun gutxira iritsi zen Antofagastara ere mobilizazio soziala. Horrela, egun batetik bestera, unibertsitateko klaseak bertan behera geratu, eta hiri horretako eskola publiko batean egindako hiru eguneko praktikaldia ere bere horretan geratu zitzaion. Ikasketa prozesuaren aurrera jarraitzeko asmoz, Antofagastako ospitaleko ikasgela batera bideratu zizkioten praktikak, eta han izan zuen lehenengoz, hainbat familiaren egoera zailen lekuko zuzena.

Adibidea ere jarri dio TXINTXARRI-ri. "12 urteko neskatila bat ezagutu nuen ospitalean, zuen adinerako oso heldua zena. Amak familia aurrera ateratzeko dirua behar zuenez, ezin zuen hutsik egin lantokian, eta ondorioz, oso gutxitan joan zitekeen ospitalera, alaba bisitatzera. Neskatila bakar-bakarrik ari zen bere gaixoaldia aurrera eramaten".

Hedabideen desinformazioa

Euskal Herritik joandako beste hiru ikaskiderekin gertatzen ari zenaz hitz egiten hasi, eta konturatu ziren hedabideak "informazioa ezkatzen" ari zirela, ez zutela herrialdean gertatzen ari zena munduratzeko, eta horri aurre hartu nahian, dokumental bat egitea bururatu zitzaion. Horrela, unibertsitateari ideia horren berri eman, eta eurek utzitako kamara batekin hasi ziren lehenengo lanetan: kalean. "Ordurako, eztanda sozialaren aurrean antolatzeke eta gertatzen

ari zenaz hitz egiteko batzarrak antolatzen ari zen unibertsitatea, eta horietan parte hartzen hasi ginen". Hitzordu horietako batean, jendaurrera irten, mikrofonoa eskuan hartu eta bertan bilduta zeuden parte-hartzaileei dokumentala egiteko asmoaren berri eman zieten. Ikus-entzunezkoan parte hartzeko gonbita luzatu eta berehala hasi ziren lehen elkarrizketekin. Lehen kontaktu horien laguntzarekin joan ziren, gero, pixkanaka jende gehiago ezagutu eta elkarrizketatzen; guztira 35 pertsonen testigantzak bildu dituzte, nahiz eta den-denak ez diren agertzen dokumentalean.

Erritmoa hartuta, "etenik gabe" aritu dira lanean, eta inoiz pentsatu gabeko leku eta errealitateak bildu dituzte. *Spoilerra* ekiditeko ez dio informazio zehatzik eman Irurtiak TXINTXARRI-ri, baina aurreratutako elkarrizketatutako emakume baten historiak zerbait. "Antofagastako Bonilla herririk erdi-marjinal batean bizi da, herrialderen aldeko borrokarekin konpromiso handia du, eta herrixkan bizi duten errealitatearekin batera emakume gisa borrokan aritzeak dituen oztupoak ere agertzen ditu".

Arriskuaz jabetu gabe

Dokumentala osatzeko zenbat "arrisku" euren gain hartu dituztela gerora konturatu dira. "Fitxatuta dagoen jendearekin aritu gara lanean, baina egiten ari ginenak arrisku batzuk zituela gehiegi pentsatu gabe ibili gara, eta eskerrak horri, bestela, ziurrenik, ez genuke osatu dugun dokumentala osatuko".

Ikus-entzunezkoarekin lanean ari zirela "ezusteko" batzuk jaso dituztela jakinarazi du lasarteoriatarrek, baina horiek ere ez dira nahikoa izan lana bertan behera uzteko. Hori bai, egin duten lana egiteko elkarren arteko babes eta laguntza "ezinbestekoa" izan dela ere azpimarratu du. Hilabeteko lan "intentsua" amaituta, Antofagastako Universidad Catolica del Norten egin zuten lehen aurkezpena, eta oso ondo gogoratzen da Irurtia une hartaz. "Jende asko hurbildu zen, t a r t e a n dokumentaleko parte-hartzaileak, eta oso

une hunkigarriak sortu ziren. Asko eskertu digute egin duguna, ezin zuten sinetsi atzerritar talde batek horrelako lan bat egin izana". Euskal Herriak ere eman dute Onatin, Usurbilen eta Markinan, eta Lasarte-Oriako data ere laster iragarriko dute.

Sobrevivir izena jarri diote dokumentalari. Hain zuzen ere hori azaleratu nahi izan baitute; urriaren 18az geroztik, egoera sozialak eztanda egin zuen egunetik, bizirauteetik duintasunez bizitzera igarotzeko ari direla borrokan.

Truke programakoekin, babesa

Truke programari esker ezagututako ikaskideengan aurkitu dute "babes handia". Eztanda soziala gertatuta, egoera "ezegonkorra" bizitzea egokitu zaie, etxera aginduak adibide. "Etxetik irten ezinik" egon behar izan dute egunak joan eta egunak etorri, eta hori "gogorra" izan dela aitortu du Irurtiak. "Giltzapetuak egotearen zama arintzeko, gu bezala truke programako ikaskideen etxeetara joaten ginen eta bertan igarotzen genituen etxeratze aginduak. Asko lagundu digu horrek, elkarrekin babesa garrantzitsua izan da".

Etxera bueltatu da orain, eta bidaia beste modu batera aurreikusia bazuen ere, "zorionekoa" sentitzen da Txilen egindako sei hilabetetan ikasitakoarekin. "Pertsonalki asko hazi naiz Txileko esperientziarekin, eta e t o r k i z u n e k o A n e hezitzailearengan eragina izango du atzerriko egonaldi horretan ezagutu eta bizitakoak".

EUSKAL HERRIKO HAINBAT HERRITAN AURKEZTU DUTE, ETA LASTER EMANGO DUTE LASARTE-ORIAN ERE

EUREN GAIN ZEUDEN ARRISKUEZ GEHIEGI JABETU GABE ARITU DIRA DOKUMENTALA LANTZEN



"Borrokarekin jarraitu behar dute; dena daukate irabazteko"

ASIER URRUZOLA TXILEKO EZTANDA SOZIALAREN LEKUKOA

Valparaisoko eztanda barru-barrutik bizitu du herritarrak. Konturatu da txiletarrek borrokatzeko arrazoi bat baino gehiago dituztela, eta bizitza duin bat helburu, horretan jarraitzera animatu ditu

M. Z.

Uztaila erdialdean iritsi zen Txilera Asier Urruzola gaztea (Lasarte-Oria, 1999). Biologia ikasketak egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta atzerrian ikasteko truke programa bati esker, Hego Ameriketara egin du sei hilabeteko egonaldia. Txile iparraldeko Valparaiso hiria izan du bizileku, Santiago hiriburutik pare bat ordura. "Oso hiri alternatiboarekin egin nuen topo; kale eta etxeak margotuta, musika emanaldiak kaleko txoko askotan...".

Valparaisora iritsi ahala unibertsitateko ikasleen geldialdiarekin egin zuen topo, eta aurreikusitakoa baino hilabete beranduago hasi zituen ikasketak. Behin martxa hartuta, ordea, gutxi iraun zuen eguneroko normaltasunak. Urriaren 18ko Santiagoko eztanda sozialak bete bete harrapatu baitzuen Valparaiso ere. "Suteak, harrapaketak, karabineroen gehiegizko errepresioa... izugarria izan da". Valparaisokoen borrokarako grina "izugarria" izaten ari da. "Langabezia tasa altua du, %18 inguruko, kontzientzia askoko hiria da, eta horregatik bat egin dute borrokarekin". Aitortu du ez duela inoiz hainbesteko "jendetza" ikusi mobilizazio batean. Gazteak ikusi ditu batez ere lehen lerroetan, baina baita helduak ere. "Gazteen indarra oso nabaria da borroka horretan, helduak, ordea, Pinocheten diktaduran bizitakoagatik beldur handia dute, ez dute ordukoa berriro errepikatzerik nahi, eta gazteen ausardian jarri dute konfiantza osoa".

"Giza Eskubideen urraketa oso larriak" gertatzen ari dira, gaurdaino, egoera lehertu zenetik. "Militarrez eta poliziez bete dira kaleak, negarra eragiteko gasa jaurti dute, ibilgailu

"GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA LARRIAK GERTATZEN ARI DIRA; BIZITZA ASKO GALDU DIRA BORROKAN"

militarretatik kimikoarekin nahastutako urarekin erredura handiak sortu dituzte, torturak eta hilketak egin dituzte eta 200 begi baino gehiago mutilatu dituzte". Bizitza tokatu zaien egoera gordin baten adibide bat ere jarri du mahai gainean: "Manifestari bat atxilotzen dutenean, beste manifestari batek grabatu egiten du atxilotzeta. Atxilotuak garrasika bere izen abizenak eta identifikazio pertsonalaren zenbakia esaten ditu, gero, hilik eta torturatuta agertuz gero, horren ardura poliziarrena dela jakinarazteko".

Inoiz uste gabeko egoerak bizitza egokitu zaio, etxeratze aginduak, besteak beste. "Sekulako inpotentzia" sentitu du, "uneoro erlojuari begira" ibili behar izan baitu, etxeratze aginduak kalean harrapa ez zezan. "Etxean behartuta egotea zaila izan da, pelikulan ikusten diren irudiak bizitu ditugu". Eztanda soziala "gogorra" izaten ari bada ere "gertatu beharrekoa" ikusten du Urruzolak. "Txileko eztanda soziala ez da metroko prezioaren igoeragatik soilik gertatu; prezio igoera horrek ordura arteko ezinegona leherrarazi du, pilaketa izan da". Txiletarren gutxieneko soldata 301.000 peso txiletar (bataz beste 347 euro) dira, eta bizi maila "gurea bezalakoa" dela azaldu du lasarteoriatarrek. "Zorpetuta bizi dira, ez dute bizitza duin bat aurrera eramateko aukerarik, eta hori lortzeko ari dira borrokan".

Errekurtso natural ugari

Herrialdeak dituen errekurtso naturalei ere erreferentzia egin die biologia ikasleak. "Petrolioaz gain, ezinbestekoak diren mineral ugari dituen herrialdea da, eta hori kontuan hartuta askoz egoera hobea batean egon daiteke Txile; blokeatuta dute". Azaldu du adibidez, kobrea bere horretan kanpoko herrialdeei saltzen dietela. Horiek produktuak sortzen dituzte kobreakin, eta Txilek, gero, produktu horiek erosten dizkie prezio askoz altuagoetan.

Etorkizun beltza ikusten dio lasarteoriatarrek herrialdeari. "Urriaz geroztik ari dira borrokan gau eta egun, eta gaurdaino ez dute aurrerapausorik lortu, eta ez dut uste, Piñera lehendakariak gobernua jarraitzen duen bitartean ezer lortuko dutenik". Dena den borrokarekin jarraitzera animatu ditu txiletarrek, nahiz eta kontziente den egoerak bere horretan luze jarraitzen badu, nekea sor dezakeela borrokan ari direnengan. "Pena emango lidake orain arteko borroka ezerezean geratzeak".

Ikasketetan eragina

Biologia ikasketak egiten ari den aldetik, ekosistema "ezberdin ugari" ezagutzeko aukera ere izan du. "Txilek basamortua du iparraldean eta izotza hegoaldean; baso tropikala ez ezik, gainerako ekosistemak aurkitu daitezke herrialde bakarrean, baita parke natural ugari ere. Oso ondo zaintzen dituzten arren, mehatzagintza, besteak beste, kalte handiak eragiten ari da". Ikasketetan aukera politak izan baditu ere, eztanda sozialak eragin dio Urruzolari. "Klaseak bertan behera geratu ziren, eta etxetik egin behar izan dut lan. Ikaskideekin denbora gehiago partekatu ezin izanaren arantza, ordea, ezin izan du kanporatu. Izan ere, eztanda soziala gertu zenenean, ikaskideak hurrengo egunean ikusiko zituen esperantzaz agurtu ziren, baina ezin izan dute berriro elkar ikusi. Dena den, elkarrekin bizitako momentuak oroitzuz, aho zapore gozoarekin itzuli da Lasarte-Oriara. Azpimarratu du oso jende "ona, eskuzabala, beroa" topatu duela Txilen. "Ezagutu gabe ere dena eskaintzen dizute txiletarrek, merezi dute duintasun osoz bizitzea, eta hori lortzea nahiko nuke".

"EZTANDA ORAIN ARTEKO EZINEGONAREN ONDORIOZ GERTATU DA; EZ METROKO PREZIOAREN IGOERAGATIK SOILIK"



Iñigo Otaegi, Asier Urruzola eta Jone Arroyo Txilen egon dira sei hilabeteko egonaldian.

"Hemen ez bezala, Txilen unibertsitateak bat egin du gizarteko arazoarekin"

JONE ARROYO ETA IÑIGO OTAEGI TXILEKO EZTANDA SOZIALAREN LEKUKOAK

Txileko Concepcion hirian elkartu dira bi lasarteoriatarrek sei hilabeteko truke programa bati esker. Ezusteko eztanda sozial baten lekuko izan ostean, motxila bizipenez beteta itzuli berri dira sorterrira

M. Z

Herrikideak dira Iñigo Otaegi (Lasarte-Oria, 1998) eta Jone Arroyo (Lasarte-Oria, 1999). Biak lasarteoriatarrek, herriko bizilagunak, baina sei hilabetez, herritik kanpo, milaka kilometrotara ere pisukide izan dira; Txilen. Euskal Herriko Unibertsitatean ari dira ikasten. Industria elektronikoa eta automatika ingeniarietza lehena, eta Gizarte Langintza bigarrena, eta, atzerriko egonaldia amaituta, sorterrira iritsi berri dira.

Hego Amerikako herrialderik "seguruena" zelako aukeratu zuen Arroyok truke programa Txilen egitea. Baina hankaz gora jarritako errealitate batean bizitzea egokitu zaio, non segurtasuna bera ere kolokan sentitu duen. Otaegik azaldu dio TXINTXARRI-ri Concepcionera iritsi eta hiria zertxobait ezagutu bezain pronto antzeman zuela bertan zegoen ezberdintasun sozial "izugarria". Txanponaren bi alde horiek ere nabaritu ditu Arroyok, eta Txileko egonaldian jabetu da oinarritzko beharrak "ase ezin" dituen jende asko dagoela herrialdean. "Txileko arazoa hain da arazo estrukturala, non irtenbide bat bilatzeko ezinbestekoa ikusten dudana erabat iraultzea".

"Ulergaitza" txiletarrak 301.000 pesoko (bataz beste 347 euro) gutxieneko soldatarekin bizitzea, bizitza maila gurea bezalakoa denean. Horrela ulertu dute txiletarrak zorpetuta bizitzearen arrazoiak nondik datozen. "Gazte gaztetatik zorpetzen dira, izan ere, unibertsitateko ikasketak oso garestiak dira Txilen, eta ezin dituztenez ordaindu, kredituak eskatu eta ikasketak bukatu

eta gero, urte luzez jarraitzen dute horiek ordaintzen".

Eztanda sozialak lasarteoriatarrek bizitzen egon diren hiria ere gogor astindu du, eta hasieran, gertatzen ari zena "erreal" zela sinestea ere kostatzen zitzaion. Ez dute ahaztu Santiagon, urriaren 18an egoera lehertu zeneko berria telebistan ikusi zuten unea: "Sei lagun bizi ginen etxe berean, eta oso erreazio ezberdinak izan genituen bakoitzak. Ez genekien gu bizi ginen hirira iritsiko ote zen, zenbait iraungo zuen ez gertatu zen guztia gertatuko zenik ere; ezjakintasun handiz bizi izan ditugu momentu asko".

Etxea, "gune segurua"

Concepcioneko gatazkaren erdigunetik apur bat aldentuta zegoen Otaegi eta Arroyoren etxea, eta horrek lagundu die egoera gatazkatsutik tarteka aldentzen. "Gure etxea zentrotik 15 minutura zegoen, kaosaren erdigunetik aparte eta horri esker, etxea gune seguru gisa ikusi dut beti", azaldu du Arroyok. Horrek, ordea, ez dio zenbait unetan beldurra sentitzea saihestu, ezta Otaegiri ere. Egunerokoak hala behartuta, egoera gordin eta zail baten baino gehiagoren lekuko izan dira. Arroyori adibidez, kontaktu zioten, polizia-kuarteleetan musika bolumen oso altuan entzutea, bertan jendea torturatzen ari zirenen seinale zela, eta hori baieztatu du berak: "Egun batean, unibertsitateetik bueltan, etxe ondoko kuarteleatik pasa eta musika ozen entzun nuen. Doinu hark ezin izan zituen torturak jasaten ari zirenen pertsonen garrasiak ezkutatu, ordea, horiek ere entzuten ziren".

Otaegi ere aurkitu da larritasun egoera batean baino gehiagotan. Manifestazioekin bat egin eta kalera irten zen une bateko bizipenak ekarri ditu gogora. "Lehenengo manifestaziora iritsi nintzenez, mobilizazioa nahiko sakabanatua zegoen eta bidegurutze batean geundenez, ez genekien nondik agertuko ziren polizia". Eguneroko

borrokatik buruan iltzatuta geratu zaion elkartasun irudi bat ere partekatu du berehala. "Oso polita izan da ikustea manifestarietako elkarri nola laguntzen dioten. Negarra eragiteko gasarekin erasotutako jende asko gerturatu zitzaion, ura eta bikarbonatoarekin, gasa arnastearen ondorioz sortutako kalteak arintzeko".

Adin guztietako txiletarrak ikusi dituzte kalean borrokan, eta horrek harritu egin ditu lasarteoriatarrek. "Hasieran gazteak irten ziren kalera, baina borroka aurrera egin ahala, adin guztietako herritarrek batu dira borrokarari. Denek dituzte kalera irteteko arrazoiak; gazteek lan baldintza txar eta soldata penagarriengatik eta helduek, berriz, pentsio miserable eta ez duinengatik, besteak beste". Kalean topatu duen gazteria mugimendua "eredugarria" da Arroyorentzat. "Askotan alderatzen nuen hemengoarekin, eta ez du zerikusirik; sekulako borroka eusten ari dira, gau eta egun, urriaz geroztik".

Egoera ezegonkorra bizitzen ari baziren ere, ez zuten Euskal Herrira bueltatzerik pentsatu. Azpimarratu dute leherketa sozialaren ondorioz akademikoki "ezer gutxi" ikasi duela atzerriko egonaldian, baina gertuagotik ezagutu ahal izan dute beste hezkuntza sistema bat. "Gurea baino askoz ere parte-hartzaileagoa da, ikasle kopurua murriztagoa da eta horrek irakasleekin gertuagoko tratua izatea ere ahalbidetzen du, ebaluazioa jarraia da". Beste alderaketa bat egitera ere ausartu da: "Euskal Herrian unibertsitateak gizarteko arazoetatik kanpo daude, Txilen ez tandarekin bat egin dute, posizionatu dira gizarteko arazoarekin".

"POLITA IZAN DA TENTSIO UNEETAN MANIFESTARIEN ARTEKO ELKARTASUN KEINUA IKUSTEA"

"TXANPONAREN BI ALDEAK OSO NABARIAK DIRA TXILEN; EZBERDINTASUN SOZIAL HANDIA DAGO"

LOKEko gimnastek, lehiari hasiera bikaina

LOKEko eskolarteko A mailako eta amateur mailako gimnastak lehen faseko txapelketako lehen postuetan izan dira. Denboraldi honetan, A mailan inoiz baino gimnasta gehiago ditu taldeak lehiari. Eskolarteko B mailako gimnastek igandean dute lehen hitzordua

Txintxarri

Irailan hasi ziren lanean LOKEko gimnastak. Bost hilabeteko prestaketen ostean, otsaileko lehen asteburuan eman diete hasiera txapelketei. Gimnastetako askok maila iguera izan dute eta ederki erantzun diote lehen hitzorduari, Eskolarteko A mailako eta amateur mailako lehen faseari. Bergarako Labegaraieta kiroldegian herriko gimnastek haien balioa erakutsi eta lehen postuetan izan ziren. Pozarren daude LOKEko entrenatzaileak.

Denboraldi ederra egin zuten iaz LOKEko gimnastek. Maila ezberdinetan, Gipuzkoako txapelketan lehen postuetan sailkatu ziren bakarkako lanean lehiatzen diren hainbat gimnasta. Hori dela eta, aurten A mailan lehiatzen dira, Maite Rueda entrenatzaileak azaldu duenez. "Senior mailan eta alebin A mailan izan genituen iaz gimnastak lehiari. Aurten, aldiz,



Alexia Barquin infantilak uztaiarekin egindako lanari esker lehen postua eskuratu zuen. LOKE

kadete eta infantil mailan ere izango dira. Lehen aldia da A mailan hainbeste gimnasta ditugunak". Horregatik irailetik lanean gogor egon direla azpimarratu du Ruedak. "Entrenamendu orduak gehitu

ditugu aurten, mailari moldatu ahal izateko".

LOKEko gimnasten lehen proba otsailaren lehen izan zen: Eskolarteko A mailako eta amateur mailako lehen fasea. Mailari neurria hartzeko balio

behar bazuen ere, ez ziren gaizki jardun eta emaitza paregabeak erdietsi zituzten.

Amateur lehiaketari dagokionez, senior A mailan, LOKEko bi gimnasten arteko lehia izan zen lehen postua eskuratzeko. Azkenean, Aizpea Arroyo gailendu zen eta lehen postua bereganatu zuen; Garazi Gomez, aldiz, podiumeko bigarren koskara igo zen.

Maila horretako B lehiaketan ere, izan zen LOKEko gimnastarik lehen postuetan, Jaione Martos. Hirugarren postua eskuratu zuen. Seigarren postuan amaitu zuen lehia Paula Martinez jubencilak, B mailan. Lau gimnasta horiek pilota-lana egin zuten denboraldiko lehen saioan.

Maitane Arroyok hirugarren postua eskuratu zuen uztailanarekin, kadete A mailan. Tresna berarekin, lehen postua eskuratu zuen Alexia Barquinek eskolarteko infantil A mailan. Eneritz Diaz de Gereñuk ere lehen postuan amaitu zuen alebin A mailako eskolarteko lehia, esku hutsik egindako lanaren ostean.

Senior talderik ez

LOKEko bi taldek ere parte hartu zuten jubencil eta kadete B mailan. Lehenak uztai eta borra-lana egin zuen eta lehen fasea seigarren postuan amaitu zuen. Kadete taldea, berriz, uztai eta pilotekin lehiatu zen eta bosgarren postuan sailkatu.

Emaitza horiez guztiaz gain, Aizpea Arroyo seniorrak Tolosako taldearekin taldekako A mailako lehen postua ere eskuratu zuen. Ruedak azaldu duenez, "ikasketak direla-eta, aurten ez da senior mailako talderik LOKE. Tolosako lagunek Arroyo eurekin lehiatzeko eskaera egin ziguten eta eurekin egingo ditu taldekako txapelketak".

Emaitza horiek lortu ostean, hurrengo hilabetean jokatuko den bigarren faserako buru belarri lanean ari dira gimnasta eta entrenatzaileak. Lehen postuetan sailkatuz gero, Gipuzkoako txapelketetan lehiatuko lirateke-eta. Hori da, Maite Rueda entrenatzailearen hitzetan, helburu nagusia: "Amateur mailako banakako, zein taldeko Gipuzkoako txapelketan egotea espero dugu".

Baina, horren aurretik, LOKEko eskolarteko B mailako gimnastek emango diote hasiera euren denboraldiari. Otsailaren 16an, igandearrekin, Donostiako Karmelo Balda kiroldegian jardungo dira Lasarte-Oriako gimnasta gazteak, hilabeteotan prestatutako koreografiak erakusteko gogoz.

Alebin B mailan Landaberri taldeak esku-hutsik eta pilotekin parte hartuko du. Infantil B mailako LOKE-Oriarte taldeak uztaiarekin egingo du lan. Bakarka Maitane Sarmiento alebina eta Aitana Molano infantila izango dira, esku hutsik eta uztaiarekin lanean, hurrenez hurren.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Urola KE
Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Trintxer, Pasaian.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Allerru KJKE A - Ostadar SKT A
Ostirala. 19:45. Plazeta, Lezon.
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Zarautz B
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro
Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT- Intxaurdi KE A
Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Billabona KE - Ostadar SKT B
Larunbata. 10:00. Arratzain, Villabonan.
Ostadar SKT A - Ordizia KE
Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN OHOREZKO KOPA
Ostadar SKT - Urola KE
Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA
Ostadar SKT - Aretxabaleta KE UDA
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA, TXAPELDUN FASEA
Burumendi FG - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 10:00. San Miguel, Mutrikun.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT B
Igandea. 13:40. Berio, Donostian.
Ostadar SKT A - Zarautz KE B
Igandea. 13:00. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
SENIOR 1. MAILA
Antiguoko KE - Eguzki Aldaz H.K.
Ostirala. 21:15. Pio Baroja kir., Donostian
Tolosala AFKE Orbela taberna - Eguzki Garoa taberna
Ostirala. 20:45. Uzturpe pil., Tolosan.
SENIOR 2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Donipari
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
JUBENILAK
Eguzki 2KN - Antigua Luberrri KE Makax
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
Herrikide CMO - Eguzki Balerdi Harategia
Larunbata. 11:00. Eskolapioak, Tolosan.

HERRIKO TXAPELKETA
Insausti - Viña del Mar
Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean.
Trumoi taberna - Bar Buenetxea
Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
Avenida FT - Garoa taberna
Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
Patricio Cocktail Bar - Bar Goiko
Larunbata. 18:15. Michelin kirol gunean.
SASKIBALOA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
Ostadar SKT - CD Internacional
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
CD Internacional - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Mons kir., Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Eskoriatza KE
Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR PARTAIDETZA
Saski Axular - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Axular Lizeoa, Donostian.
EUSKAL LIGA, KADETE
Moviteck ISB - Ostadar SKT
Larunbata. 13:00. Zubiaurre kir., Azkoitian.
KADETE PARTAIDETZA
Bera Bera Balda - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Paco Yoldi kir., Donostian.

INFANTIL HANDI PARTAIDETZA
Ugari - Ostadar SKT
Igandea. 11:00. Harripila kir., Legorretan.
INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Goierri Irimo - Ostadar SKT
Igandea. 16:30. Aldiri kir., Urretxun.
PILOTA
BINAKAKOA, SENIOR 1. MAILA
Hernani - Intza
Ostirala. 20:00. Hernanin. (bigarren partida)
2. MAILAKO INFANTILA
Alde Zaharra 1 - Intza
Ostirala. 18:30. Altza, Donostian.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA
Ostadar SKT - Fortuna
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
IGERIKETA
ANTONIO LOPEZ SARIA
Aintzane Sarobe Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko da.
Larunbata eta igandea. Bartzelonan.
ERRUGBIA
OHOREZKO MAILA
Avia Eibar RT - Babyauto Zarautz RT
Larunbata. 16:00. Unbe, Eibarren.

18 URTEZ AZPIKOAK
Gaztedi RT - Babyauto Zarautz/Beltzak
Larunbata. 10:15. Lakua, Gaizezen.
16 URTEZ AZPIKOAK
Mutriku/ Zarautz/Beltzak - La Unica RT B
Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutrikun.
14 URTEZ AZPIKOAK
Ordizia RT B - Babyauto Zarautz/Beltzak
Larunbata. 12:30. Altamira, Ordizian.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko atletik gazteenmailako mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute.
Larunbata. 16:00 Antonio Eiorza bel., Donostian.
GIMNASTIKA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
LOKEko eskolarteko B mailako gimnastek lehen faseko txapelketan parte hartuko dute.
Igandea. 10:15. Karmelo Balda kir., Donostian.
IPAR MARTXA
PIRATEN ALDE MARTXAN
Aspanogik antolatutako proban izango dira Ostadar Ipar Martxako kideak.
Igandea. 11:00. Sagues, Donostian.

Dominak eta markak, Gipuzkoako txapelketetan

Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzeko maila absolutuko Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu du. Enara Gonzalezek, aldiz, 20 urtez azpiko mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du luzera jauzian. Biak dira Gipuzkoako txapeldun

Txintxarri

Ostadar SKTko atletek bi asteburu zirrargarri izan dituzte. Otsailaren leian, Gipuzkoako gazte mailako txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen; aurreko asteburuan, berriz, maila absolutuko txapelketan. Bietan ederki moldatu dira Oscar Goikoetxea eta Amaia Andresek prestatutako gazteak eta hainbat domina eskuratu dituzte, baita Espainiako txapelketetarako gutxienekoak lortu ere.

Otsailaren 8an eta 9an, Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa jokatu zen, Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Txapelketa horretan Ostadarreko kirolarien artean Naroa Furundarena eta Maider Rekondo nabarmendu ziren.

Furundarenak bi urrezko domina eskuratu zituen luzera jauzian eta jauzi hirukoitzean. Bi probatan lehen jauzian jarri zen sailkapen buruan eta jauzi hirukoitzean, batez ere, haren aurkariek ezin izan zuten ezer egin, hamabi metroko langa gainditu baitzuen lehenengoan, 12,29 metroko marka eginez.

Marka horrek gainera, sari bikoitza eman zion. Maila absolutuko Espainiako txapelketarako sailkapena ere



Naroa Furundarena jauzi hirukoitzeko podiumean. OSTADAR SKT ATLETISMO

eskuratu zuen-eta. "Pozarren gaude Naroaren garapenarekin. Maila nabarmen batera iritsi da. Izan ere, txapelketa honetan Espainiako hamabi atleta onenak parte hartzen baitute", azpimarratu du Oscar Goikoetxea Ostadar SKTko prestatzaileak.

Era berean, Maider Rekondo 12,36 metrora iritsi zen pisu jaurtiketan. Nahiz eta txapelketa ederra egin, jaurtiketa gehienak hamabi metrotik gorakoak izan, aurkari gogorra aurkitu zuen lasarteoriatarrek, Tolosa taldeko Maria Felisa Okomo. Okomok

lehen jaurtiketatik erakutsi zuen bere nagusitasuna hamabi metroko langa aise gaindituz eta 13,06 metroko marka eginez irabazi zuen txapelketa. Rekondok, beraz, bigarren postuko zilarrezko domina eraman zuen etxera.

Abiadurako probetako podiumetan ere izan zen beste herritarrik. Eneritz Busto Atletico San Sebastian taldeko atletak zilarrezko postua lortu zuen 60 metroko hesi proban eta Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz gazteak, aldiz, hirugarren postua egin zuen 60 m. lasterketan.

Txapelketaz kanpo, Naroa Elvira kadeteak 300 metroko lasterketa jokatu zuen eta bigarren postua eskuratu zuen. Aste honetan izango duen proba prestatzeko aukera ederra izan zen. Izan ere, Gazte mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute Ostadar SKTko atleta ugari eta lehen jardunaldian lortutako emaitzak berdintzea espero dute.

Gazte mailak

Lehen jardunaldian, otsailaren leian, larunbatearekin, talde urdin-beltzeko hainbat gaztetxo izan ziren dominen lehian eta askok garaikurren bat izan zuten esku artean. Enara Gonzalezek 20 urtez azpiko luzera jauziko txapela eskuratu zuen. 5,35 metroko jauzia egin behar izan zuen garaipena erdiesteko eta marka horri esker, martxoan Sabadellen (Katalunia) jokatu den Espainiako txapelketarako gutxienekoa egin zuen lasarteoriatar gazteak.

Naroa Furundarena maila bereko pisu jaurtiketa txapeldun berria da, 8,91 metroko marka eginda. 60 metroko lasterketako finalean ere izan zen Furundarena eta laugarren postuan amaitu zuen proba: 8,18 segundotan geratu zuen kronometroa. Urrezko domina ere eskuratu zuen Leire Centenok 18 urtez azpiko 1.500 m. proban. Naroa Elvirak bi domina eraman zituen etxera 16 urtez azpiko mailan. 60 m. proban txapeldunorde izan zen eta brontzezko postua lortu zuen luzera jauzian.

Proba horretako podiumean Irati Valdivia ere izan zen. Hirugarren mailan izan zen gaztea. Finaletan lehiatu ziren beste atletak Maider Abete, Uxue Centeno eta Irati Iglesias izan

ziren. Abete seigarren izan zen 20 urtez azpiko 60 m. lasterketan. 16 urtez azpiko pisu proban, berriz, Centeno zazpigarren izan zen eta Iglesias zortzigarren.

Pistaz gairiko helburuak

Oskar Goikoetxea entrenatzailea pozik dago atletak txapelketetan erakusten duten mailarekin. "Guztiak oso ongi ari dira entrenatzen eta emaitzak dira horren erakusle", adierazi du.

Pista estaliko denboraldiko txapelketa garrantzitsuenak jokatu dira hilabete hauetan eta emaitza ederrak lortuko dituztela uste du talde urdin-beltzeko prestatzaileak.

Dagoeneko Espainiako txapelketetarako hiru gutxieneko dituzte. Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzean lortu ditu bi, absolutu mailakoa eta 20 urtez azpikoa eta hirugarrena, arestian aipatutako Enara Gonzalezen luzera jauziko marka da. Baina hurrengo txapelketetan beste markaren bat lortzeko aukerak dituzte Ostadar SKTko atletak.

Emaitzak emaitza, atletismoko saileko helburuak pistaz gairikoak dira. Oskar Goikoetxeak azpimarratzen duenez, balioak landu eta atleten kirol helburu eta helburu pertsonalak gauzatzen laguntzea dira: "Atletismo sailak betiko helburuak ditu. Errespetua, berdintasuna, esfortzua... erakusten diegu gure atletei eta pertsona bezala ere garatzen laguntzen diegu".

NAROA FURUNDARENA HAMABI ONENEN ARTEAN LEHIATUKO DA, ESTATUKO TXAPELKETAN

Gomez Margallo garaile, Uliako Gimnastikako proba motzean

Hamar kilometroko Gipuzkoako txapelketa jokatu da. Mari Carmen Olaso 50 urte baino gehiagoko lehena izan da

Txintxarri

Donostiako Gros auzoko kaleak korrikalariz bete ziren igandean, otsailaren 9an. Uliako Gimnastika krosetan bi proba lehiatu ziren, 5 eta 10 kilometrotakoak, eta bietan herritarrek izan ziren lasterka.

Proba motza jokatu zen lehenik, eta podiumeko koska gorenera igo zen Raul Gomez Margallo herritarra. Hamasei minutu eta 33 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko. Lehen hamarren artean izan zen, Gorka

Gil ere. Bosgarren helmugaratu zen, 17:04ko denbora eginda.

10 kilometrotako lasterketan estatu osoko korrikalariak izan ziren lehian eta Gipuzkoako txapela ere zegoen jokoan.

Herritarren artean azkarrenak, David Garcia Romero eta Rebeca Villanueva izan ziren: 37:37 eta 40:29ko denborak egin zituzten.

Horiez gain, Lasarte-Orian bizi den Mari Carmen Olaso hernaniarra 50 urte baino gehiagoko mailako lehen gipuzkoarra izan zen.



Raul Gomez Margallo Uliako Gimnastika lasterketako momentu batean. J. ZATARAIN

Igerilari gazteak, Gipuzkoako onenen artean

Emaitza bikainak lortu dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariak Gipuzkoako Neguko txapelketan. Lehen postuetan izan dira eta Euskal Herriko txapelketarako gutxieneko berria ere lortu du taldeak. Gipuzkoako Neguko Saria ere lehiatu dute asteburuan

Txintxarri

Igeriketako neguko denboraldia aurrera doa eta txapelketa garrantzitsuen garaia iritsi da. Buruntzaldea IKTko igerilariak entrenamenduei etekina ateratzeko unea heldu da, eta, emaitzak ikusita, lan ederra egin zuten lehengo asteburuan Gipuzkoako Neguko Txapelketan eta Gipuzkoako Neguko Sarian. Guztira sei urre, hamar zilar, sei brontze eta taldekako hirugarren postua eskuratu zituzten. Horrez gain, Gipuzkoako txapelketako FINA eta *Multidisability* taulan lehen postu bana eta Euskal Herriko txapelketako gutxieneko berri bat ere zakuratu zituzten.

Buruntzaldea IKTko zortzi igerilariak Gipuzkoako Neguko Txapelketa jokatu zuten, otsailaren 8an eta 9an, Bergaran. Gogotsu aritu ziren lehian; hori erakusten dute kirolariak lortutako emaitzek.

Nerea Santos eta Eneko Elizasu junior mailako Gipuzkoako txapeldun berriak dira, 1.500 m. libre proban. Txapela jantzi zuten ere Aintzane Sarobe juniorrak 50 m. libre proban. Nora Imazek, berriz, hiru urrezko domina eskuratu zituen infantil mailako 100 m., 200 m. eta 800 m. libre probetan.

Podiumeko bigarren mailan izan ziren lau igerilari. Nerea Santos 1.500 m. libreko absolutu proban eta junior mailako, 800 m. libre proban lortu zuen balentria; Aintzane Sarobek, absolutu mailako 50 m. libre proban eta junior mailako 100 m. proban; Nora Imazek absolutu mailako 800 m. libre proban eta Unai G. Somovillak junior mailako 100 m. bular eta 100 m. bizkar probetan.

Nerea Santosek eta Unai G. Somovillak brontzeko domina ere eskuratu zuten. Santosek absolutu mailako 800 metro libre proban eta Somovillak, berriz,



Gipuzkoako Neguko Txapelketan hainbat domina lortu dituzte igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

BURUNTZALDEA IKT-KO BEDERATZI IGERILARI ARIKO DIRA EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN LEHIAN

junior mailako 200 metro bular proban.

Sari horiez gain, Nora Imazek eta Nathalia E. Torresek FINA puntuen eta igeriketa egokituko *Multidisability* puntuen sariak eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Banaka igeri egindako hiru proba onenen batura egiten da bi sailkapen horietan eta Buruntzaldea IKTko bi igerilariak lortu zuten puntu gehien. Sariekin batera, marka pertsonal ugari hobetu zituzten eta Saioa Elolak Euskal Herriko Neguko Txapelketarako gutxienekoa lortu zuen 400 m. libre proban.

Marka horrekin, bederatziko ordezkari izango ditu Buruntzaldea IKTko otsailaren 22an eta 23an Irunen jokatu den Euskal Herriko Txapelketan: Nerea Santos, Aintzane Sarobe, Nora Imaz, June Lopez, Saioa Elola, Garazi Etxeberria, Nerea Irazu, Izaro Audikana eta

Nathalia E. Torres. Txapelketa prestatzeko lanean ari dira guztiak, eta, Aintzane Sarobek izan ezik, beste zortzietatik asteburu honetan atsedean izango dute. Sarobe Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko da Antonio Lopez Sarian, Bartzelonan.

Infantilak podiumean

Bestalde, otsailaren 8an, gutxienez gabeko Gipuzkoako Neguko XI. Saria jokatu zen, Andoainean. Gipuzkoa osoko igerilariak bildu ziren bertan eta Buruntzaldea IKTko zazpi igerilariak parte hartu zuten. Infantil mailan izan ziren emaitzarik onenak. Garazi Irigorasek zilarra eskuratu zuen 100 m. lau estilo proban eta zilarra 100 m. bizkarrean. Haritz Gomezek zilarra eskuratu zuen 100 m. tximeleta proban eta hirugarren geratu zen 200 m. lau estiloetan.

Brontzeko postua eskuratu zuten Unai Barcinak eta Inge Etxezarretak ere. Etxezarretak 100 m. bular proban eta 50 m. tximeletan eta Barcinak, aldiz, 100 m. lau estilo proban. Emaitza horiei esker gainera, taldeak hirugarren postua lortu zuen sailkapenean eta garaikurra jaso zuen Buruntzaldea IKTk.



Senior mailan, nagusi izan zen EPLEko bikotea. Intzak ezin izan zuen ezer egin. TXINTXARRI

Intzako bikoteek, batean kale, bestean bale Udaberri txapelketan

Lehiaketan aurrera egin dezake kadete mailako bikoteak; seniorrek, ordea, zail dute hurrengo faserako sailkapena

Txintxarri

Larunbat arratsaldean pilotazaleek Udaberriko txapelketako partidak ikusteko aukera izan zuten, Michelingo pilotalekuan. Intza pilota elkarteko senior eta kadete 3. mailako bikoteek etxean jokatu zituzten euren norgehiagokak.

Arratsaldeko lehen partidari, Haritza Diaz de Gereñu eta Pedro Elosegui osatutako bikoteak ikusleak gozazki zituen haien jokoarekin. Nagusi izan ziren Intzako gaztetxoak jokoan eta 22-10 garaitu zuten Aloña Mendiko bikotea.

Seniorrek, berriz, komeriak izan zituzten. Haritz Urkiak eta Asier Catalinak ezin izan zuten EPLEko bikotearen aurka. Errenteriako bikoteak Euskal Ligan jokatu zuen aurreko denboraldian, eta maila ezberdintasuna nabaritu zen partidari. 6-22 galdu zuen Intzak.

Udaberri txapelketako lehen fasea amaiteko hiru aste geratzen dira eta senior bikoteak zail du hurrengo faseko txartela lortzea. Laugarren postuan daude eta lehn biak sailkatzen dira. Kadeteek, ordea, aukera handiak dituzte aurrera egiteko, bigarren daude-eta.



OSTADAR INKLUSIOA

Goenaga, Munduko txapelketara

Ostadar Inklusioa taldeko kide Ander Goenagak ISA World Para-Surfing Championship txapelketan parte hartuko du. Goenagak urtarrilean selekzioak antolatutako teknifikazio saio batzuetan parte hartu zuen. Orain Espainiako Surf Selekzioak aukeratu du martxoaren 11tik 15era La Jollan, Kalifornian (AEBak) jokatu den Munduko Txapelketan lehiatzeko.

ZORION AGURRAK



Kaia
Zorionak Kaia!! Zure lehen dabiliko urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Aita eta ama.



Esther eta Judith
Zorionak zuen 16. urteurrenean osaba Gonzaloren partetik. Muxu bat eta mila irri.



Hodei
Zorionak, Hodei! Muxu asko amonaren eta familia guztiaren partetik!



Gaizka
Zorionak Gaizka! Zure aitona-amonaren partetik.



Uxue
Zorionak, maitea, zure 11. urtebetetzean! Oso ondo pasa eta muxu handi bat aitatzu eta amatxoren partetik.



Jon Pello
Zorionak Richardz! Azken urtea 3.Orako e! Aprobetxa metxa, badatoz eta komeriak! Atzoko harrera gure kontu, baina asteleheneko hamaiketako ez ahaztu! Besarkada estu bat, Ttakuneko lankideen partez!

Urte askotarako!

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *txintxarri@txintxarri.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Sohail Bahlat El Korti. Otsailaren 6an.

HILDAKOAK

Miguel Marquina Lizasoain. Otsailaren 12an.

Rosa Dalama Solveira. Otsailaren 9an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Posta bidezko botoa

Apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarreko hauteskondeetarako postaz emateko asmoa duten herritarrek, martxoaren 26ra arte dute eskaera egiteko. Eskaera edozein Posta bulegotan egin ahalko da.

Posta zerbitzuak aditzera eman duenez, eskari hau hautesle bakoitzak egin behar du. Eskabidea egiteko unean, interesdunek beren nortasuna egiaztatu behar dute.

Correos-ek Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzetan entregatuko ditu jasotako eskabideak, eta horiek, martxoaren 16tik 29ra bitartean, posta bidezko botoa eman ahal izateko beharrezko dokumentazioa bidaliko diete eskatzaileei.

Tramite horiek errezteko alderdi politikoek haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenean ostiralera goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.

Algarvera eta Kadizera bidaiak

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bidaiak antolatzen ditu Algarvera (Portugal) eta Cadizera maiatzaren 28tik ekainaren 5era. Bidaiak 700 bat euroko kostua du bazkideentzat eta bazkide ez direnek 775 euro ordaindu beharko dituzte gutxi gorabehera.

Bidaian interesatuak dauden herritarrek Biyak Bat elkarte bulegotik pasa behar dute 10:00etatik 12:30era. Plaza erretserba egiteko 250 euro ordaindu behar dira.


'Oporrak bakean', familia bila

Lasarte-Oriako Udalak *Oporrak Bakean* proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du. Zortzi familia behar dira, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak hartzeko.


Interesatuak gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, *gizartez@lasarte-oria.org* helbide elektronikora idatzi.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15




Igandea, 16




Astelehena, 17




Asteartea, 18



Asteazkena, 19



Osteguna, 20



GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 14 ACHA-ORBEA
Larunbata, 15 LASA
Igandea, 16 LASA
Astelehena, 17 URBISTONDO
Asteartea, 18 GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 19 DE ORUE
Osteguna, 20 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

		5	1			3	6
		8	6				1
6			9		5	2	4
5					9	6	
8	6			4		7	
	2	7		6	8		
3		2			6	4	7
	8	6	4			3	
		4			2		1

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Euskotren ondoko garajea marra salgai. Harremanetarako zenbakia, 687 271 288.

ERRENTAN EMAN
Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

Urbarte auzoan bi garaje marra alokatzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

LANA

ESKAINITZA
Jatetxe eta proiektu gastronomiko berrirako zerbitzariak eta sukaldariak behar dira. Interesatuak CVA bidali dezakete hurrengo helbide elektronikora: info@casahumada.com.

ESKARIA

Esperientzia duen pertsona euskalduna

eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxek lanak egiteko. Dendari edo garbitzaile bezala ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 677 356 413.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauetan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

Edozein lan egiteko prest nago: adineko pertsonak zaindu, baserrietan lan egin, portalak garbitu, e.a. Berehala hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 604 341 893.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

SALEROSKETAK

SALDU
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Erakusketa

Donostiako CIMASUB 2019 lehiaketako argazki onenen erakusketa ikusgai izango da, otsailaren 27ra arte. Mundu osoan ateratako 23 lanez gozatu daiteke. Horien artean, sari nagusiak eskuratu zituzten irudiak daude. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Txerri hiltzea

Ama Guadalupeko Extremadura etxeo kideek txerri hiltzearen V. jai antolatu dute. Gaur Txerri hiltzea izango da. Elkartetik Berrobira joango dira. Ama Guadalupeko Extremadura etxea, 16:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Sorgin Jaiak ekimenak bilera egingo du 2020eko San Pedro Jaietako egitaraua osatzeko. Ideia frexkoak behar dituzte ekimen erakargarriak eta dibertigarriak antolatzeko. Xirimiri elkarteak, 19:30etatik aurrera.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendezzen *Marrak* erakusketa, berriro ere, Lasarte-Orian da. Aurpegi eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Otsailaren 27ra arte izango dira lanak ikusgai. Jalgi Kafe Antzokia, egun osoan zehar.

LASARTE-ORIA Txerri hiltzea

Txerri hiltzearen V. jai bigarren eguna antolatu dute Extremadura etxeo kideek:

09:30ean, ogi-mami dastaketa.

10:30ean, txerri zatitzea eta txorizo eta odolki tailerra.

14:30ean, herri bazkaria.

16:00etan, karaokea.

21:30ean, herri afaria.

Ama Guadalupeko Extremadura etxea, egun osoa.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Txerri hiltzea

Ama Guadalupeko Extremadura etxeo kideek txerri hiltzearen V. jaiari amaiera emango diote:



LASARTE-ORIA Euskal Inauteriak. Lasarte-Oriako Euskal Inauteri konpartsak kaleak alaituko ditu. Zubietako txantxoek emango diote hasiera arratsalde osoko egitarauari. Kalejiran Lasarte-Oriari etorriko dira eta Lasarte-Oriako txantxoek Hipodromoko zubian bat egingo dute. Euskal doinu eta dantzek herriko kaleak hartuko dituzte Okendo plazara iritsi arte. Bertan xomorroekin ituna berriro eta Kaxkamalo erreko da. Euria eginez gero, ekitaldi nagusia Oriarte BHIko Landaberri eraikinean egingo da, 17:30ean. Lasarte-Oria, larunbata, 16:30etik aurrera.

11:00etan, perrunillak, salda eta pattarra.

14:00ean, herri bazkaria.

Ama Guadalupeko Extremadura etxea, 11:00etatik aurrera.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA CIMASUB 2020

CIMASUB 2020 edizioaren bigarren jardunaldiaz gozatu ahalgo da. Mundu osoan zehar grabatutako lanez gozatu ahalgo da:

- *La tragedia del Carnatic*, Julio Junquera Aparicio.
- *It's not a nightmare*, José Luis Alcaide Sanjurjo.
- *Sandie Illusions*, Julie Ouminet.
- *El suroeste de Tenerife*, Felipe Ravina Olivares.
- *Cuida tus recuerdos*, Marc Pedrals Prat.
- *Desconexión*, Maite Erauskin eta GAEA elkarteak.
- *Of Barbels and Spines*, Olivier Van den Broeck.
- *Yo el mar*, José Carlos Rando.
- *Mallorca nocturna*, Antonio Menor Vives
- *El Thistlegorn*, David Sánchez Carretero.
- *WhaleTotem*, Simone Piccoli.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etatik 20:30era.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Literatur txokoa

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek Mari Luz Esteban idazlearen *Andre zaharraren manifestua* liburua landuko dute Uxue Alberdiren laguntzaz. Mari Luz Esteban idazlea ere saioan izango da haien galderak erantzuteko. Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Amarau Klubeko HH3 eta HH4 mailako haurrek ipuin kontaketa saio berezia dute. Abestiak, eskulanak... landuko dira ipuineko gaia bereganatzeko. Izen ematea Ttakun Kultur Elkarteak, aisia@ttakun.eus helbidean edo 695 785 392. Osasun zentrokora eraikina, 2. solairua, 17:45etik 18:45era.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Musika

Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleek Inauterietako kontzertua eskainiko dute. Txokoetako haurren dantzak ikusi eta instrumentuen doinuez gozatu ahalgo dute senideek. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

La vérité (JBGA)
Igandea: 17:00.

Lur eta Amets. Hau bai abentura!
Igandea: 17:00.

Dios mío... pero ¿qué te hemos hecho ahora?
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Parásitos

Ostirala:
16:00, 18:45,
21:35, 00:05.
Larunbata: 18:35,
21:20, 00:05.
Igandea: 16:00,
18:45, 21:35

Fantasy Island

Ostirala: 15:45,

18:05, 20:15,
22:35, 00:55.
Larunbata: 15:45,
18:05, 20:15,
22:35, 00:55.
Igandea:
15:45, 18:05,
20:15, 22:35.

Hasta que la boda nos separe

Ostirala: 15:45,
17:55, 20:30,
22:50, 00:55.
Larunbata: 15:45,
17:55, 20:30,
22:50, 00:55.
Igandea:
15:45, 17:55,
20:30, 22:50.

Sonic: La película

Ostirala: 16:00,
17:00, 18:15,
19:15, 20:15.
Larunbata: 16:00,
17:00, 18:15,
19:15, 20:15.

Igandea: 16:00,
17:00, 18:15,
19:15, 20:15.

Aves de presa (y la fantabulosa emancipación de Harley Quinn)

Ostirala:
16:50, 19:20,
21:40, 00:00.
Larunbata:
16:50, 19:20,
21:40, 00:00.
Igandea: 16:50,
19:20, 21:40

Adú

Ostirala:
16:30, 19:10,
21:45, 00:15.
Larunbata:
16:30, 19:10,
21:45, 00:15.
Igandea: 16:30,
19:10, 21:45.

Las aventuras del Doctor

Dolittle

Ostirala: 15:45,
18:05, 20:25.
Larunbata: 15:45,
18:05, 20:25.
Igandea: 15:45,
18:05, 20:25.

Bad Boys for Life

Ostirala:
21:30, 00:10.
Larunbata:
21:30, 00:10.
Igandea: 21:30.

1917

Ostirala:
22:25, 00:55.
Larunbata:
22:25, 00:55.
Igandea: 22:25.

El escándalo

Ostirala: 22:35.
Larunbata: 22:35.
Igandea: 22:35.

Jumanji:

Siguiente nivel
Larunbata: 16:00.



LABURPENA

Lur eta Amets. Hau bai abentura!

Zuzendariak: Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce. **Gidoilariak:** Eneko Olasagasti eta Carlos Zabala. **Musika:** Joserra Senperena. **Animazio zuzendaria:** Imanol Zinkunegi. **Zuzendari artistikoa:** Aitor Etxebeste. **Story board:** Jose Angel Lopetegi eta Iñaki Holgado. **Ekoizpen arduraduna:** Miren Berasategi. **Herr.:** Euskal Herria (2019). **Iraupena:** 87 minutu.

Euskal Herriko historia ezagutzen

Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia ipuinetako protagonistak pantaila handian ikusteko aukera izango dute etxeko txikiek hauren zinema atalean.

Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia proiektua Elkar Fundazioa, Ikastolen Elkarteak eta Katxiporretak jarri zuten martxan etxeko txikiak eta gaztetxoak Euskal Herriko historian murgiltzeko asmoarekin. Lotura Filmseko lagunekin batera ipuin, ezagutza-liburu, jolas interaktiboak eta mahai jolasak egin dituzte. Orain, ipuinetan oinarritutako *Lur eta Amets. Hau bai abentura!* film luzea egin dute.

Gurasoek ezkontza dutela eta, *Lur eta Amets* bizikiak amona Andereren etxean igaroko dute asteburua. Ikastolako historia saioa dela eta, ez da asteburu arrunta izango. Andere eta bere katu Baltaxarren botere magikoei esker, Euskal Herriko historia ezagutzeko bidai zirrargarria proposatzen die amonak. Garai eta sasoi desberdinetan abenturak biziko dituzte bizikiak. Tamalez, sasoi eta garai desberdinetan, gaiztoak izango dituzte atzetik. Andere eta Baltaxarren laguntza ordaingabearekin bidaian aurrera egingo dute.

MERKEALDIA

Zatoz eta aprobezta itzazu

prezio bereziak

VARILUX LENTEETAN

*Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira*



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Otsailak 29, larunbata HERNANIN, ORONA FUNDAZIOAN

Bi saio:

- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 18:30ean

**SARRERAK
SALGAI!**

Sarrerak:
7 € + 3 € elkartearen
laguntzarako, guztira: 10 €

Non erosi?

HERNANI: Dobera - Kronikako bulegoan
(Larramendi 11, behea)

ASTIGARRAGA: Merke azoka dendan
(Kale Nagusia 33)

URNIETA: 2KN okindegian
(Máximo Yurramendi 2)

**DO
BE
RA**
EUSKARA
ELKARTEA
943 33 27 99
dobera@dobera.eus

LENE KANTAK
SATORJATOR
LURRAREN BIHOTZERA BIDAIA



EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 15 • LASARTE-ORIA

16:30 | Zubietan ekitaldia

Ondoren, Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

17:00 | **DESFILEAREN HASIERA** (Hipodromoko zubitik herritik barrena)

19:00 | **SENIDETZEA, DANTZA eta SUAREN EKITALDIA**

(Okendo plazan)

Amaitzeko: Partaideentzako txokolatada goxoa Okendo plazan

Eguraldi txarra eginez gero, festa 17:30ean hasiko da
Oriarte-Landaberriko estalkian

